# OSPITALE-ESTATISTIKA
# ESTADISTICA HOSPITALARIA

# 1996

**EUSKO JAURLARITZAKO
OSASUN SAILAREN
LAGUNTZAREKIN EGINA**

REALIZADO EN COLABORACION CON EL
DEPARTAMENTO DE SANIDAD
DEL GOBIERNO VASCO

Eustat

# PRESENTACION

La presente publicación, decimotercera de la serie de la Estadística Hospitalaria se ha realizado gracias a la colaboración entre el Euskal Estatistika Erakundea/ Instituto Vasco de Estadística y el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

Se ofrece la información correspondiente al año 1996, y un capítulo dedicado a las series 1984-1996, y recoge fundamentalmente datos sobre personal, equipamiento, actividad asistencial y económica de los centros hospitalarios de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Esta información se complementa con la "Estadística de Altas Hospitalarias" que ofrece información sobre las características de los pacientes dados de alta y las patologías atendidas.

En esta edición se incluye el cuestionario a fin de que los interesados en el tema sean conocedores del volumen de información disponible, recordando que estamos a disposición de los usuarios para recibir sus sugerencias y ampliar el contenido de la publicación, advirtiendo que está sujeta a secreto estadístico.

Se recuerda al usuario la posibilidad de disponer de los datos en soporte magnético HEDAPEN, con la ventaja de que permite la manipulación de dichos datos para realizar cálculos dentro de las tablas y entre diferentes tablas, además de presentar gráficos, y la conversión de las tablas a formatos (ASCII, Excel, Lotus, Mapinfo, Dbase, etc.) adecuados para otros programas comerciales.

EUSTAT pone además a su disposición vía INTERNET (www.eustat.es), una selección de tablas con los datos más relevantes de la estadística, que el usuario puede consultar y extraer en formato Excel, junto con la correspondiente nota de prensa. Próximamente, la oferta de datos a través de nuestro servidor se ampliará a la totalidad del contenido del banco de datos de HEDAPEN.

Agradecemos a todos el interés y el esfuerzo realizado, de manera especial a los centros hospitalarios tanto públicos como privados, y el apoyo prestado por parte de organismos oficiales como Osakidetza, esperando que dicha publicación sea de utilidad para todos.

Vitoria-Gasteiz, junio de 1998

FRANCISCO J. LLERA RAMO
Director General

# AURKEZPENA

Hemen aurkezten dizuegun liburu hau, Ospitale-Estatistikaren serieko hamairugarrena, Euskal Estatistika-Erakundearen eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren arteko lankidetzari esker egin dugu.

Oraingo honetan, 1996. urteari buruzko datuak eskaintzen dizkizuegu, bai eta 1984-1996 serieei dagokien atal bat ere. Batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako langileei, ekipamenduei, asistentzi jarduerari eta ekonomi jarduerari buruzko datuak bildu ditugu. Informazio horren gehigarria da "Ospitale-Alten Estatistika", alta eman zaien pazienteen ezaugarriei eta atenditutako patologiei buruzko datuak eskaintzen dituen eragiketa, hain zuzen.

Aurtengo argitaraldian, erabilitako galdesorta ere sartu dugu, gai honetan interesa dutenek erabilgarri dagoen informazioa zenbatekoa den ezagut dezaten. Gogorarazten dugu, bestalde, erabiltzaileen esanetara gaudela iradokizunak jasotzeko eta argitalpen honen edukia handitzeko –datuak, dena den, estatistika-sekretupean daude–.

Erabiltzaileei gogorarazten diegu datuak HEDAPEN euskarri magnetikoan jasotzeko aukera ere badutela; datu-base horren bidez, datu horiek manipulatu egin ahal izango dituzue, tauletan eta taulen artean kalkuluak egiteko, grafikoak aurkezteko, eta taulak merkatuko beste programa batzuetara egokitutako formatuetara (ASCII, Excel, Lotus, Mapinfo, Dbase, etab.) bihurtzeko.

EUSTATek, gainera, INTERNETen bidez (www.eustat.es) estatistika bakoitzari buruzko datu aipagarrienak biltzen dituen taula batzuk jarri ditu zure eskueran; erabiltzileak taula horiek kontsulta ditzake, eta Excel formatuan atera, bakoitzari dagokion prentsa-oharrarekin batera. Laster, gure zerbitzariaren bidez, HEDAPEN datu-bankuaren eduki osoa eskainiko dugu.

Gure eskerrik beroenak guztiei agertu duten interesagatik eta egindako ahaleginagatik, batez ere, ospitale guztiei (publikoei zein pribatuei) eta beste erakunde ofizial batzuei (esaterako, Osakidetzari), argitalpen hau guztientzat baliagarria izango delako itxaropenaz.

Vitoria-Gasteiz, 1998ko ekaina

FRANCISCO J. LLERA RAMO
Zuzendari Nagusia

# INTRODUCCION

La Estadística Hospitalaria tiene por objeto conocer la situación actual de los hospitales de la Comunidad Autónoma y reunir en una sola operación estadística las diferentes demandas de información por parte de Organismos Estatales y Autonómicos de forma que se simplifique la recogida de información en tiempo, medios y documentos estadísticos, reduciendo, asímismo, el trabajo a realizar por los centros a la hora de cumplimentar los diferentes cuestionarios.

La primera estadística relativa al tema de hospitales se realizó en 1972, bajo el nombre de Estadística de Establecimientos Sanitarios con régimen de Internado, por parte del Instituto Nacional de Estadística y la comisión Central de Coordinación Hospitalaria. En 1983, los Gobiernos Autónomos comienzan a colaborar recogiendo los datos de los centros y es en 1984 cuando se aborda la realización de la primera estadística propia de la Comunidad Autónoma de Euskadi por parte del Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística y del Departamento de Sanidad y Consumo, constituyendo la primera experiencia del Estado.

A fin de no interrumpir las series estadísticas estatales sobre dicho aspecto sanitario, los requisitos de la Administración Central han constituido el punto de partida para el diseño de los nuevos cuestionarios en los cuales se ha incluido información específica de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Dicha encuesta se puede considerar de carácter censal, puesto que incluye a todos los hospitales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, tanto públicos como privados.

En los centros públicos se ha recogido información de todos los servicios asistenciales, intentando caracterizar cada servicio como centro de actividad con su información individualizada, lo que a su vez aporta calidad y definición a la información global del hospital.

En los centros privados no ha sido posible recoger dicha información en forma desagregada, al carecer de una estructura de servicios diferenciada, como en los centros públicos.

# SARRERA

Ospitale-Estatistikaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleen gaurregungo egoera zein den jakitea eta Estatuko nahiz Autonomia Erkidegoko erakundeek egiten dituzten informazio-eskaerak estatistika bakar batean jasotzea. Horrela denbora, baliabide eta agirisorta estatistiko gutxiago erabiltzeko bidea eskaini nahi da, osasun-zentroek galdesortak betetzerakoan lan gutxiago izan dezaten.

Ospitaleen inguruko lehenengo estatistika 1972. urtean egin zuten Estatistika Institutu Nazionalak eta Koordinakuntzako Batzorde Zentralak. Azterketa hari “Estadística de Establecimientos Sanitarios con Régimen de Internado” deitu zioten. 1983an Gobernu Autonomoak ere estatistika hori egiten laguntzeko datuak jasotzen hasi ziren osasun-zentroetan, eta 1 984an Euskal Estatistika-Erakundeak eta Osasun, eta Kontsumo Sailak erabaki zuten Euskal Autonomia Erkidogoko lehen ospitale-estatistika egitea. Hori izan zen Estatuan egindako lehenengo esperientzia.

Osasunaren alderdi honi buruzko Estatuko serie estatistikoak ez etetearren, galdesorta berriak taiutzerakoan Administrazio Zentralaren betekizunak izan ziren abiapuntua, Euskal Autonomia Erkidegoko zegokion berariazko informazioarekin osatuz.

Inkesta horrek zentsu izaera daukala esan daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitale guztien nondik norakoa adierazten duelako, publikoena nahiz pribatuena.

Zentro publikoetan asistentzi zerbitzuei buruzko informazioa biídu da, eta zerbitzu bakoitza jarduera zentro gisa hartu nahi izan da, bakoitzak bere informazioa daukala. Horrek kalitatea eta definizioa ematen dizkio ospitalearen informazio globalari.

Zentro pribatuetan ezinezkoa izan da informazio hori jasotzea era desagregatuan, ez baitago zerbitzu-egitura berezirik zentro publikoetan dagoen bezala.

La unidad básica de información utilizada en la encuesta es el establecimiento hospitalario, siendo el hospital la unidad informante que cumplimenta el cuestionario relativo a la Estadística Hospitalaria.

Para poder establecer un acercamiento entre los demandantes de la información y los que la producen, se han recogido los datos mediante agentes entrevistadores preparados para realizar este cometido por parte del Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística.

La explotación realizada ofrece información sobre personal sanitario, área médico-asistencial y área económica, reflejando una imagen detallada de las actividades que se realizan en las mismas. Los resultados se presentan para cada uno de los Territorios Históricos y, además, para la clasificación territorial del Mapa Sanitario de la C.A. de Euskadi elaborado por el Departamento de Sanidad.

Los datos se presentan a su vez desagregados en base a finalidad, dependencia y capacidad de los hospitales, de la siguiente forma:

— La finalidad, en función del tipo de actividad que realizan los hospitales, se clasifica en:

- Agudos
- Media y larga estancia
- Psiquiátricos

— La dependencia patrimonial puede ser:

- Osakidetza
- Benéfico-Particular
- Privados
- Cruz Roja
- Otros

— La capacidad, según el tamaño de los centros en cuanto a camas, se clasifica en los siguientes grupos.

- < 51
- 51-100
- 101-200
- 201-400
- 401-800
- > 800

Por último y para algunas tablas se facilitan los datos por los bloques de especialidades asistenciales que figuran a continuación:

— Medicina interna y especialidades médicas

— Cirugía general y especialidades quirúrgicas

— Pediatría

• Medicina pediátrica
• Cirugía pediátrica
• Neonatología

— Obstetricia

— Ginecología

— Psiquiatría

— Rehabilitación

— Larga estancia

Inkestan erabilitako oinarrizko informazio-unitatea osasun-etxea izan da, eta Ospitale-Estatistikari buruzko galdesorta bete duena, ospitalea.

Informazio –eskatzaileak eta– informazio sortzaileak elkarren artean hurbildu nahian, datu-bilketa Euskal Estatistika Erakundeak horretarako prestatutako elkarrizketatzaileen bidez egin zen.

Egindako ustiapenak ematen duen informazioa osasun-langileei, medikuntza-asistentziako arloari eta ekonomi arloari buruzkoa da, eta bertan egiten diren jarduerei buruzko xehetasun ugari ematen ditu. Emaitzak lurralde historikoka eta Osasun Sailak egindako Euskal AEren Osasun Maparen arabera sailkatuak ageri dira.

Datuak, bestalde, helburuaren, menpekotasunaren eta edukieraren arabera aztertu dira, honela:

— Helburua, ospitaleek egiten dituzten jarduera-motei begira, honela sailkatzen da:

- Gaixo akutuak
- Egonaldi ertaina eta luzea
- Psikiatrikoak

— Ondare-menpekotasuna honako hauena izan daiteke:

- Osakidetzarena
- Ongintza partikularrekoena
- Pribatuena
- Gurutze Gorriarena
- Bestelakoena

— Edukiera, zentroen tamainaren arabera eta oheei dagokienez, honako taldeotan sailkatzen da:

- < 51
- 51-100
- 101-200
- 201-400
- 401-800
- > 800

Azkenik, zenbait taulatan asistentzi espezialitateen arabera ematen dira datuak, honela sailkatuta:

— Barne-medikuntza eta medikuntza-espezialitateak

— Kirurgia orokorra eta kirurgi-espezialitateak

— Pediatria

• Medikuntza pediatrikoa
• Kirurgia pediatrikoa
• Neonatologia

— Obstetrizia

— Ginekologia

— Psikiatria

— Errehabilitazioa

— Egonaldi luzea

— Cuidados intensivos

— Unidad de quemados

— Unidad de coronarios

— Otros (unidad del dolor, cuidados mínimos)

En el capítulo cuarto se dan una serie de ratios o coeficientes analíticos según las divisiones establecidas anteriormente, con el fin de poder establecer análisis comparativos de los resultados. El significado de dichos ratios se expone en el apartado de definiciones.

En el capítulo quinto se ofrece un compendio de los principales datos de la actividad de los hospitales de la C.A. de Euskadi entre los años 1984 y 1996. El capítulo consta de dos apartados. En el primero figuran los datos absolutos de las variables más representativas, y en el segundo los indicadores más interesantes. En ambos casos viene desagregada en función del Territorio Histórico, el carácter de la asistencia y la finalidad de los hospitales.

El hospital de Basurto se considera de dependencia pública en toda la serie, aunque no se incorporó a la red de Osakidetza hasta 1992.

Confiamos que la presente edición cumpla con el objetivo principal: ofrecer anualmente una información cada vez más fiable y útil que, no obstante, se debe de someter a una revisión permanente, en base a las criticas de los usuarios.

— Etengabeko ardurak

— Erretakoen unitatea

— Koronarioen unitatea

— Bestelakoak (Oinazearen unitatea, ardura minimoak)

Laugarren atalean, lehen esandako sailkapenen araberako ratio edo koefiziente analitikoen zerrenda ageri da, emaitzen arteko azterketa konparatiboak egin ahal izateko. Ratio horien esanahiak definizioen atalean azaltzen dira.

Bosgarren atalean 1984 eta 1996 urteen arteko Euskal AEko ospitaleen jardueraren laburpena eskaintzen da. Atalak bi azpiatal ditu. Lehenengoan, aldagai adierazgarrienen datu orokorrak ageri dira eta bigarrenean adierazlerik interesgarrienak. Bi kasuotan banatua ageri da lurralde historikoaren, asistentziaren izaeraren eta ospitaleen helburuaren arabera.

Basurtoko ospitalea menpekotasun publikokotzat jo da serie osoan, nahiz eta 1992 arte ez zen sartu Osakidetzako sarean.

Argitalpen sail honek bere helbururik behinena iritsiko duelakoan gaude, urtetik urtera informazio fidagarri eta baliagarriagoa eskaintzea baita, nahiz eta erabiltzaileek egindako kritika eta iruzkinen arabera etengabe berraztertu beharko den.

# DEFINICIONES

Se exponen a continuación algunos de los conceptos básicos utilizados, a fin de facilitar la comprensión de las tablas de resultados.

**PERSONAL DEL CENTRO**

No se ha incluido como personal del hospital al perteneciente a empresas concertadas (limpieza, lavandería, etc.) ni el personal en período de formación (M.I.R., A.T.S.).

Se incluye el personal efectivo a 31-XII-96 y no los puestos de trabajo que figuran en plantilla.

No se incluye en este concepto:

— El personal en comisión de servicio, adscrito a otra institución.

— El personal en disfrute de excedencia.

— El personal que por baja laboral temporal transitoria haya sido sustituido.

Por el contrario se incluye al personal vinculado al establecimiento por contrato temporal o en comisión de servicio.

**Vinculados al Hospital.—**Personal que depende del hospital mediante contrato laboral o estatutario.

**Colaborador habitual.—**Personal que trabaja habitualmente en el hospital pero sin contrato.

**Total de personal.—**Corresponde a la suma de los directores, gerentes, personal asistencial y personal no asistencial.

**Médicos.—**Todo personal médico que preste sus servicios en el hospital, independientemente de su puesto (Jefe de servicio, etc.); no se incluyen en este concepto los M.I.R., los asistentes voluntarios ni los becarios.

**Otros especialistas.—**Se incluyen en este concepto todos los especialistas no desarrollados en epígrafes anteriores (medicina preventiva, odontología).

**De Guardia.—**Médicos dedicados exclusivamente a la realización de guardias hospitalarias.

# DEFINIZIOAK

Jarraian, liburuki honetan erabilitako oinarrizko kontzeptu batzuk azalduko ditugu, emaitzen taulak errazago uler daitezen.

**OSASUN-ZENTROETAKO LANGILEAK**

Ez dira osasun-zentroetako langile gisa sartu itundutako enpresen langileak (garbiketakoak, ikuzketakoak, etab.etakoak), ez eta trebakuntza aldian zeuden langileak ere (BAME, OLT).

Sartu dira 96-XII-31n benetan zeuden langileak, eta ez lanpostu-zerrendetan agertzen ziren lanpostuak.

Ondokook ere ez dira sartu:

— Zerbitzu-emankizunean zeuden langileak, beste erakunde bati atxikita zeudenak.

— Eszedentzian zeuden langileak.

— Aldi baterako bajan egoteagatik ordezkatuak izan ziren langileak.

Behin behingo lan-hitzarmena zeukatelako edo zerbitzu emankizunean zeudelako osasun-zentroetan ziharduten langileak, aldiz, sartu dira.

**Ospitaleari lotetsiak.—**Lan edo estatutu hitzarmen bidez ospitalearen menpe zeuden langileak.

**Ohiko laguntzaileak.—**Ospitalean baina hitzarmenik gabe lan egiten zuten langileak.

**Langileak guztira.—**Zuzendariek, kudeatzaileek, osasun-asistentzitarako langileek eta gainerako lanileek osatzen dute.

**Medikuak.—**Lana ospitalean bertan egiten zuten mediku guztiak, bere lanpostua dena dela (zerbitzuburua, etab.). Ez dira sartu BAMEak, borondatezko laguntzaileak eta bekadunak.

**Beste espezialistak.—**Orain arte adierazi gabeko espezialista guztiak sartzen dira hemen (medikuntza prebentiboa).

**Gau eta egunekoak.—**Ospitaleko goardiak soilik egiten zituzten medikuak.

**Otros titulados superiores con función sanitaria.**—Físicos, biólogos, farmacéuticos, etc., que presten servicio en el hospital.

**A.T.S. y D.E.**—Ayudantes técnicos sanitarios y diplomados de enfermería. Las matronas y fisioterapeutas se hacen constar en sus epígrafes correspondientes.

**Técnicos sanitarios.**—Formación profesional de segundo grado con labor asistencial (anatomía patológica, laboratorio, etc.).

**Directores y gerentes.**—Personal dedicado exclusivamente a la dirección y gestión del hospital. Un médico que compatibilice sus labores de dirección y administración con su labor asistencial, se hace constar como personal médico y no en este concepto, para evitar duplicidades.

**Técnicos superiores.**—Titulados superiores que desarrollan sus funciones en las áreas de administración y servicios generales.

**Técnicos medios.**—Titulados de grado medio que desarrollan sus funciones tanto en las áreas de administración como en servicios generales.

**Administrativos.**—Auxiliares administrativos y administrativos.

**Personal de oficio cualificado.**—Formación profesional de segundo grado, excluyendo la rama sanitaria.

**Otro personal.**—Personal vinculado al centro que no esté incluido en los epígrafes anteriores.

## PERSONAL EN FORMACION

**M.I.R.**—Médicos internos y residentes, integrados en los apartados a) y b) del artículo 3 de la Orden de 9 de diciembre de 1977 del Ministerio de Sanidad y Seguridad Social.

**Otros Internos Residentes.**—Químicos, biólogos, farmacéuticos, etc.

## DOCENCIA

Se incluye el número total de alumnos en el año académico 1994-96.

## PERSONAL DE EMPRESAS DE SERVICIOS CONCERTADOS

Personal de empresas de servicios concertados que desarrollen su jornada laboral en el centro.

## DOTACION

**En funcionamiento.**—Aquella dotación fija que cuenta con el personal y equipamiento necesario y que esté en funcionamiento el 31-XII-96, esté o no utilizada en esa fecha.

**Osasun-funtzioa duten beste goi-mailako tituludunak.**—Beren zerbitzuak ospitalean prestatzen dituzten fisikariak, biologoak, botikariak, etab.

**OLT eta ED.**—Osasun laguntzaile teknikoak eta erizaintzako diplomatuak. Emaginak eta fisioterapeutak dagokien idazatian aipatzen dira.

**Osasun-teknikariak.**—Bigarren mailako lanbide-heziketa asistentzi eginkizunekin dutenak (anatomia patologikoa, laborategia, etab.).

**Zuzendariak eta kudeatzaileak.**—Ospitalearen zuzendaritzaz eta kudeaketaz soilik arduratzen ziren langileak dira. Zuzendaritza eta adminsitrazio lanak osasun laguntzekin batera burutzen zituzten medikuak mediku gisa azaltzen dira soilik, bikoiztasunik gerta ez dadin.

**Goi-mailako teknikariak.**—Administrazio-arloan eta zerbitzu orokorretan lan egiten duten goi-mailako teknikariak.

**Erdi-mailako teknikariak.**—Administrazio-arloan eta zerbitzu orokorretan lan egiten duten erdi-mailako teknikariak.

**Administrariak.**—Administrari laguntzaileak eta administrariak.

**Lanbide kualifikatuko langileak.**—Bigarren mailako lanbide-heziketa dutenak, osasunaren-adarrekoa izan ezik.

**Bestelako langileak.**—Osasun-zentroari lotetsita egonik aipatu gabe utzi diren langileak.

## TREBAKUNTZA-ALDIAN DAUDEN LANGILEAK

**BAME.**—Osasun eta Gizarte Segurantzako Ministerioak 1977ko abenduaren 9an emandako Aginduaren 3. atalleko a) eta b) idazatietan sartutako barneko mediku egoiliarrak.

**Beste Barneko Egoiliarrak.**—Kimikoak, biologoak, botikariak, etab.

## IRAKASKUNTZA

1994-96 ikasturteko ikasle guztien kopurua sartzen da.

## ITUNDUTAKO ZERBITZU-ENPRESETAKO LANGILEAK

Laneguna osasun-zentroan ematen duten itundutako zerbitzu-enpresetako langileak.

## ZUZKIDURA

**Funtzionamenduan.**—Beharrezkoak diren langile eta tresneria zeukan eta 96-XII-31 n funtzionamenduan zegoen zuzkidura finkoa, data horretan erabilia zegoen ala ez kontuan hartu gabe.

**Camas.—**Se refiere a camas destinadas a la atención continuada de pacientes ingresados.

Se incluyen como camas las incubadoras fijas y las cunas, excepto aquellas destinadas a la atención de los recién nacidos normales.

No se contabilizan en este epígrafe las siguientes camas:

— Las de observación del servicio de urgencia.

— Las de acompañantes y las supletorias.

— Las utilizadas por el personal del centro.

— Las dedicadas específicamente a hospital de día, exploraciones especiales, inducción preanestésica, puesto de diálisis, etc.

**Quirófanos.—**Salas destinadas a la intervención o asistencia quirúrgica del enfermo, dotadas de una mesa de operaciones. Las características de las salas y su equipamiento deben permitir:

a) Una iluminación ajustable de poder suficiente para permitir un trabajo delicado.

b) Condiciones asépticas que deben incluir la provisión de instrumentos estériles y locales para el cambio de ropa de personal.

c) La provisión de anestesia más compleja que la que puede proporcionarse en las salas de hospitalización, por ejemplo: anestesia general, bloqueo epidural, etc.

No se incluyen en el concepto quirófano los paritorios, las salas de extracción dental ni las salas de radiografía.

Las salas de operaciones dobles o gemelas se consideran como dos quirófanos individuales, siempre que sea posible atender a dos pacientes simultáneamente.

**Paritorios.—**Salas destinadas al proceso del parto y dotadas específicamente para ello, excluyendo los quirófanos.

**Salas de consultas externas.—**Salas destinadas a consultas con pacientes en régimen ambulatorio, excluyendo las destinadas específicamente a consultas de urgencia.

**Salas de Rayos X.—**Se consideran salas de radiología, aquellas provistas de equipamiento capaz de producir un estudio radiológico completo.

Las salas dotadas exclusivamente con aparatos de radioscopia, y los quirófanos con dotación radiológica no los incluimos en este epígrafe.

**Unidades de Tomografía Axial Computerizada.—**Se registran las unidades de T.A.C. de cráneo y de cuerpo de que disponga el Centro.

**Salas de resonancia magnética.—**Instalaciones provistas de campos magnéticos y, energía de radiofrecuencia que se utilizan con fines de diagnóstico médico.

**Unidades de Litotricia.—**Se expresarán las unidades de litotricia por ondas de choque de que disponga el Centro.

**Oheak.—**Ospitaleratutako gaixoak etengabe zaintzeko oheak dira.

Ohetzat hartzen dira inkubagailu finkoak eta sehaskak ere, jaioberri normalenak direnak izan ezik.

Ondoren zehazten diren oheak ez dira sartzen:

— Larrialdietako behaketetarakoak.

— Gaixoen laguntzaileenak eta gehigarriak.

— Zentroko langileek erabilitakoak.

— Eguneko ospitale-eginkizunetarako, azterketa berezietarako, anestesiaurreko indukzioetarako, dialisirako etab. soilik erabiltzen direnak.

**Ebakuntza-gelak.—**Ebaketak egiteko gelak dira eta operazio-mahai bat izaten dute. Gelen ezaugarriak eta ekipamendua honelakoak izan behar dute:

a) Lan delikatuak egiteko behar hainbateko indarrez hornitutako argi egokigarria edukitzea.

b) Kondizio aseptikoak izatea, horien artean tresneria esterilizatua eta langileentzako aldagelak.

c) Ospitaleratze-geletan eman daitekeen baino anestesia konplexuagoa emateko aukera izatea, hala nola anestesia orokorra, blokeo epidurala, etab.

Ez dira ebakuntza gelatzat hartu erditze-gelak, hortz-haginak ateratzeko gelak eta erradiografia-gelak.

Ebaketa bikoitz edo bikietarako gelak bi ebakuntza gela indibidual gisa hartu dira, bi gaixoez aldi berean arduratzeko modurik baldin badago behintzat.

**Erditze-gelak.—**Erditzeko gelak dira, bereziki horretarako prestatuta daudenak. Ebakuntza-gelak ez dira sartzen.

**Kanpo-kontsultetarako gelak.—**Ohean egotera behartuta ez dauden gaixoentzako kontsulta gelak dira. Ez dira horien artean sartu larrialdietako kontsultetarako bereziki prestatutakoak.

**X izpien gelak.—**Erradiologiako gelatzat hartu dira ikerketa erradiologiko osoak egin ahal izateko tresneriaz hornituta daudenak.

Erradioskopia-aparatuak soilik zituzten gelak eta azterketa erradiologikoak egiteko tresneria zeukaten ebakuntza-gelak ez ditugu hemen sartu.

**Ordenagailu bidezko Tomografia Axialeko unitateak.—**Osasun-zentroan zeuden buru-hezurreko eta gorputzeko OTA unitateak sartu dira.

**Erresonantzia magnetikoko gelak.—**Diagnostikoak egiteko erabiltzen diren eremu magnetikoz eta erradiomaiztasuneko energiaz hornitutako instalazioak.

**Litotrizi unitateak.—**Osasun-zentroan zeuden talka-uhinen bidezko litotrizi unitateak sartu dira.

**Salas de Hemodinámica.—**Salas destinadas a la realización del estudio invasivo y tratamiento, por medio de la técnica de cateterismo arterial y venoso de las enfermedades circulatorias y cardiopulmonares.

**Unidades de megavoltaje.—**Se incluyen:

— Bomba de Cobalto

— Acelerador lineal

**Hemodinamikako gelak.—**Arteria eta zainetako kateterismoaren teknikaz baliaturik odoleko eta bihotz-biriketako gaixotasunen azterketa inbasiboak eta tratamenduak egiteko gelak.

**Megaboltajeko unitateak.—**Hor sartzen dira:

— Kobalto-ponpak

— Azeleradore lineala

**ACTIVIDAD ASISTENCIAL POR ESPECIALIDADES**

**Total.—**Actividad global desarrollada en el centro respecto a cada una de las especialidades.

**Medicina.—**Comprende Medicina Interna y especialidades médicas: Cardiología, Neumología, Gastroenterología, Dermatología, Inmunología y Alergia, Endocrinología, Hematología, Neurología, Oncología, etc.

**Cirugía.—**Comprende Cirugía General y Digestivo y resto de especialidades quirúrgicas: Cirugía Cardiovascular, Neurocirugía, Maxilo-facial, Plástica y Reparadora, Oftalmología, Otorrinolaringología, Urología, etc.

**Neonatología.—**Comprende la atención al neonato, definido como la edad comprendida desde el nacimiento hasta el primer mes de vida. Se cuentan únicamente las incubadoras fijas, no se incluyen las cunas destinadas a la atención de recién nacidos normales.

**Larga estancia.—**Comprende la atención de enfermos afectos de procesos crónicos que precisan fundamentalmente cuidados prolongados de enfermería en unidades diferenciadas o en centros sanitarios específicamente dedicados a estos enfermos. Se excluye la atención de psiquiatría, ya recogida en los anteriores epígrafes.

**Cuidados intensivos.—**Comprende la atención de enfermos afectos de procesos agudos que requieren cuidados y monitorización intensiva. En caso de existir varias unidades de este tipo (unidad de cuidados coronarios, traumatizados, etc.) se registra la suma de sus actividades.

**Unidad de quemados.—**Comprende la atención de pacientes con quemaduras graves y muy graves, cuando está diferenciada esta actividad dentro del centro. En caso contrario se incluye en el apartado de cuidados intensivos.

**Unidad de coronarios.—**Unidad destinada específicamente al cuidado de pacientes con procesos agudos de isquemia coronaria, atendida por personal especializado, cuando está diferenciada esta actividad dentro del Centro. En caso contrario se incluye en el apartado de Cuidados Intensivos.

**Otros.—**Otras actividades o especialidades no incluidas en los apartados anteriores, en el caso de que estén diferenciadas como tales dentro del centro.

**ASISTENTZI JARDUERAK ESPEZIALITATEEN ARABERA**

**Guztizkoa.—**Osasun-zentroetan eta espezialitate bakoitzean egindako jarduerak guztira.

**Medikuntza.—**Barne-Medikuntza eta medikuntza-espezialitateak sartzen dira hemen: kardiologia, pneumologia, gastroenterologia, dermatologia, inmunologia eta alergia, endokrinologia, hematologia, neurologia, onkologia, etab.

**Kirurgia.—**Kirurgia orokorra, liseriketako eta gainerako ebakuntza-espezialitateak sartzen dira hemen: kirurgia kardiobaskularra, neurokirurgia, masail-aurpegietakoa, plastikoa eta konpontzailea, oftalmologia, otorrinolaringologia, urologia, etab.

**Neonatologia.—**Jaioberrien ardurak sartzen dira hor eta jaioberri gisa hartzen dira hilabete baino gutxiago duten haurrak. Inkubagailu finkoak bakarrik zenbatu dira, eta ez dira barnehartu jaioberri normalek erabiltzeko diren sehaskak.

**Egonaldi luzea.—**Gaixotasun kronikoak dituztenen zaintza sartzen da hor, hau da, unitate berezietan edo gaixo horientzat espreski prestatutako osasun-zentroetan erizaintzako laguntzak denbora luzez behar dituztenen zaintza. Ez dira sartu psikiatria zaintzeko egonaldiak; horiek gorago jasota daude.

**Etengabeko ardurak.—**Gaixo akutuentzako etengabeko ardura eta zaintza sartzen da hor. Horrelako unitate bat baino gehiago egotea gertatuz gero (bihotzeko arduretarako unitatea, traumatizatuentzako unitatea) haien jardueren batura adierazi da.

**Erretakoen unitatea.—**Erredura larri eta oso larriak dituzten gaixoak zaintzeko unitateak dira, baldin eta zentroan horretarako unitate berezi bat badago. Bestela etengabeko ardurekin batean sartu da.

**Koronarioen unitatea.—**Iskemia koronarioko protesu akutak dituzten gaisoak zaintzeko berariaz prestatutako unitateak. Jarduera hori bereizia dagoenean zentroaren barruan, langile berezituak atenditzen du. Bestela, etengabeko arduren atalean sartzen da.

**Bestelakoak.—**Aurreko idazatietan barnehartu ez diren bestelako jarduera edo espezialitateak, osasun-zentroan berezita badaude.

## ESTANCIAS

**Estancias causadas.—**Se considera a efectos de esta estadística al conjunto de pernocta más una comida (almuerzo o cena). Se incluyen las estancias causadas por pacientes que ingresaron antes del 1 de enero de 1996.

Los días que los enfermos hayan permanecido en las unidades de cuidados intensivos (coronarios, neonatales...) sólo se registrarán en este epígrafe cuando la cama o incubadora de cuidados normales haya estado reservada.

Las sesiones de diálisis no se consideran estancias.

## INGRESOS

**Alta.—**Se considera dado de alta aquel paciente que haya producido al menos una estancia. En este epígrafe se consignará la suma de los distintos tipos de altas, que a continuación se detallan:

**Curación o mejoría.—**Las que se han producido por curación o mejoría, incluyendo los traslados de los pacientes a centros de cuidados mínimos o de larga estancia.

**Traslado.—**Aquellas que se han producido por traslado a otros servicios o centros para diagnóstico o tratamiento.

**Fallecimiento.—**Aquellas que se han producido por fallecimiento.

**Voluntarias.—**Las producidas por consentimiento propio o de particulares autorizados.

**Consultas externas.—**El total de actos médicos realizados de forma ambulatoria, para el diagnóstico, tratamiento o seguimiento de un paciente.

## URGENCIAS

**Total de urgencias.—**Urgencias producidas por los enfermos que acuden desde fuera del hospital. No se registran las urgencias generadas por enfermos ya ingresados.

— **Ingreso.—**Pacientes atendidos en el servicio de urgencia e ingresados a continuación en algún servicio del centro.

— **Traslados a otro centro.—**Pacientes atendidos en el servicio de urgencias y remitidos a continuación a otro centro, hospitalario.

— **Alta.—**Pacientes dados de alta en el servicio de urgencia que no hayan requerido ingreso en el centro, ni traslado a otro centro, ni hayan fallecido en el servicio de urgencias.

— **Fallecimiento.—**Pacientes fallecidos en el servicio de urgencias. No se incluye aquellos que ingresaron ya cadáveres.

**Determinaciones.—**Se entiende por determinaciones cada uno de los distintos parámetros investigados y obtenidos como resultados finales, aunque procedan de la misma muestra.

## EGONALDIAK

**Egindako egonaldiak.—**Gaua pasatzea gehi otordu bat egitea (bazkaria edo afaria) dira egonaldiak estatistika honen ondorioetarako. 1996eko urtarrilaren 1a baino lehen egindako egonaldiak sartu dira.

Etengabeko arduretarako unitateetan (bihotzekoetan, jaioberrientzakoetan...) emandako egunak egonaldi gisa hartuko dira bakar-bakarrik gaixo horiek ardura normaletarako ohea edo inkubagailua gordeta izan baldin badute.

Dialisiak egiteko jardunaldiak ez dira egonalditzat ematen.

## SARRERAK

**Altak.—**Gutxienez egonaldi bat egin dutenak dira alta emandako gaixoak. Hemen sartu dira dauden alta mota desberdinak, hau da, ondokook:

**Sendatzea edo hobera egitea.—**Sendatu edo hobera egin zuten gaixoen altak. Bertan sartzen dira gaixoak ardura minimoetako zentroetara edo egonaldi luzekoetara eramatea.

**Lekualdatzea.—**Diagnostikoak egiteko edo tratamenduan jartzeko beste zerbitzu edo zentroetara eramateagatik emandako altak.

**Hiltzea.—**Hiltzeagatik gertatutako altak.

**Borondatezko altak.—**Norberaren baimenaz edota horretarako haizututako norbaitenaz emandako altak.

**Kanpo-kontsultak.—**Ohean egon beharrik ez duten gaixoek medikuari egindako ikustaldiak, diagnostikoa edo jarraipena egiteko nahiz tratamendua jartzeko.

## LARRIALDIAK

**Larrialdiak guztira.—**Ospitalez kanpotik etorritako gaixoen larrialdiak. Ez dira sartu ospitaleratuta zeuden gaixoen larrialdiak.

— **Ospitaleratzea.—**Larrialdietan atenditu ondoren zentroko zerbitzuren batean sartutako gaixoak.

— **Lekualdatzea.—**Larrialdietan atenditu ondore beste ospitaleren batera eramandako gaixoak.

— **Alta.—**Larrialdietan atenditu ondoren ospitaleratuak edo beste zentroren batera eraman beharrak izan ez ziren gaixoak eta larrialdi zerbitzuetan hil ez-zirenak.

— **Hiltzea.—**Larrialdi zerbitzuan hildako gaixoak. Ez dira barnehartu jadanik hilotz ospitaleratuak.

**Determinazioak.—**Determinaziotzat hartzen da aztertutako eta azken emaitza gisa lortutako neurgailu bakoitza, nahiz eta lagin beretik etorri.

Contabiliza la suma de las determinaciones de los diferentes laboratorios, así como el total en cada uno de ellos. En el supuesto de que no existan laboratorios diferenciados únicamente se consignará en este epígrafe el total de determinaciones.

Laborategi guztietako determinazioen batura zenbatzen du, bai eta horietako bakoitzeko guztizko kopurua ere. Laborategi bat baino gehiago ez badago, determinazioen guztizko kopurua baino ez da agertuko atal honetan.

## ACTIVIDADES EN SERVICIOS GENERALES

**Estudios RX.—**Cada proceso radiológico diferenciado. Por ejemplo: un tránsito gastroduodenal se considera un solo estudio; una RX A.P. y Lat de tórax, un estudio.

**Placas de RX.—**Placas radiográficas utilizadas, incluyendo asimismo las desechadas.

**Ecografías.—**Se considerará cada estudio como una unidad, independientemente de su duración y del número de registros realizados. Se incluyen en el cómputo las ecografías utilizadas en las diversas áreas (radiodiagnóstico, ginecología, digestivo, etc).

**Total del T.A.C.—**Número de estudios practicados (los de cráneo más los de cuerpo) independientemente del número de imágenes obtenidas en cada estudio.

**Biopsias.—**Total de especímenes de biopsia y piezas quirúrgicas examinadas.

**Necropsias.—**Número de necropsias en pacientes que habiendo sido atendidos en una cama del centro sanitario, hayan fallecido.

**Citologías.—**Se trata del número de estudios realizados.

**Total de Muestras.—**Se entiende como muestra de laboratorio cada uno de los productos extraídos o suministrados para análisis: orina, sangre, etc., tanto si es para una como para varias determinaciones realizadas en el mismo laboratorio.

Por ejemplo: Curva de glucemia, si se extrae cinco veces sangre al paciente para determinar la glucemia, se consigna como cinco muestras. Si se extrae una cantidad de sangre y se remite una porción al laboratorio de hematología y otra parte para el de bioquímica, se consigna una muestra en cada apartado, correspondiendo dos al total. Si se extrae una muestra de sangre para realizar hematocrito, hemoglobina y recuento leucocitario, se registra únicamente una muestra.

## OSPITALEETAKO ZERBITZU OROKORRETAKO JARDUERAK

**X izp. azterketak.—**Erradiologiako egintza guztiak. Adibidez: urdail eta duodenoko iragapena azterketa bakar bat da; bularreko Aur. At. eta A.I.ko X Izp. bat, beste bat.

**X izp. plakak.—**Erabilitako erradiografia-plakak, baztertutakoak ere barnehartuz.

**Ekografiak.—**Azterketa bakoitza unitate bat da, haren iraupena edota erabilitako erregistro-kopurua dena dela. Arlo desberdinetan egindako ekografiak sartu dira, hala nola erradiodiagnostikoan, ginekologian, liseriketakoan etab. egindakoak.

**OTAk guztira.—**Egindako azterketen kopurua (buruhezurrekoak eta gorputzekoak), azterketa bakoitzean lortutako irudien kopurua dena dela.

**Biopsiak.—**Aztertutako biopsia espezimen eta kirurgi pieza guztiak.

**Nekropsiak.—**Osasun-zentroko ohetan zainduak izanik hil egin ziren gaixoei egindako nekropsien kopurua.

**Zitologiak.—**Egindako azterketen kopurua.

**Laginak guztira.—**Aztertzeko erauzi edo emandako produktuak dira laborategiko laginak, hala nola, gernua, odola, etab., laborategian egindako determinazio bakar baterako nahiz gehiagotarako direla.

Adibidez, gluzemiaren kurba: gaixoari odola bost aldiz ateratzen bazaio gluzemia determinatzeko, bost lagin gisa hartzen dira horiek. Odola atera eta hortik pixkatera hematologiako laborategira eramaten bada eta gainerakoa biokimikakora eramaten bada, sail bakoitzean lagin bat adierazi da, eta guztizkoan berriz bi. Odol pixkat hematokritoa, hemoglobina eta leukozito-kopurua zehazteko ateratzen bada, lagin bakar bat adierazten da.

## ACTIVIDAD ASISTENCIAL QUIRURGICA

**Total de intervenciones.—**Se registra el número total de actos quirúrgicos llevados a cabo en los quirófanos del centro, según conste en el libro de quirófanos. Se excluyen las intervenciones realizadas fuera de lo que a efectos de esta estadística se ha definido como quirófano.

**Programadas.—**Acto quirúrgico que no es preciso realizar de forma inminente, disponiéndose de tiempo previo para la preparación del enfermo, diagnóstico más concreto y/o tratamiento previo, en aras a disminuir sus riesgos y mejorar resultados.

## KIRURGIAKO ASISTENTZI JARDUERA

**Ebaketak guztira.—**Ebakuntza-gelatan egindako ebaketa-kopurua jaso da, ebakuntza-gelako liburuan agertzen zenaren arabera. Ez dira sartu estatistika honen ondorioetarako ebakuntza-gela gisa definitutakoetatik kanpo egin ziren ebaketak.

**Programatutakoak.—**Berehala egin beharrekoak ez diren ebaketak, eta horrenbestez gaixoa prestatzeko, diagnostiko zehatzagoa egiteko edota aurretiazko tratamendua jartzeko aukera ematen dutenak, arriskuak gutxitu eta emaitzak hobetzearren.

**De urgencia.—**Acto quirúrgico que se realiza de forma inminente, por la patología sospechada o confirmada del paciente, asumiendo un riesgo en principio menor que en el caso de diferir la intervención.

**Con hospitalización.—**Cirugía realizada a pacientes previamente ingresados, o que originan ingreso tras la intervención.

**Cirugía Mayor Ambulatoria.—**Se entiende como tal la atención de procesos subsidiarios de cirugía realizada con anestesia general, local, regional o sedación que requieren cuidados postoperatorios poco intensivos o de corta duración, por lo que no necesitan ingreso hospitalario y pueden ser dados de alta pocas horas después del procedimiento.

**Resto de Intervenciones Ambulatorias.—**Pequeñas intervenciones realizadas de forma ambulatoria en los quirófanos del hospital.

**Cirugía extracorpórea.—**Intervenciones quirúrgicas realizadas sobre el corazón y los grandes vasos que requieran la utilización de una bomba de circulación extracorpórea.

**Larrialdietakoak.—**Gaixoari susmatu edo egiaztatu zaion patologiaren izaerarengatik berehala egin beharreko ekintza kirurgikoak dira. Horrelakoetan ebaketa gerorako utzita baino arrisku txikiagoa izaten du orohar gaixoak.

**Ospitaleratzekoak.—**Aldez aurretik ospitaleratutako gaixoei egindako kirurgia, edo ebakuntzaren ondoren ospitalean sartzen direnak.

**Kirurgia handi bulatorioa.—**Kirurgiako prozesu subsidiarioak atenditzeko egiten den kirurgia (anestesia orokor, lokal edo erregionalarekin eginak); ebaketaren ondoren ez dute zainketa oso intensiborik edo luzerik eskatzen; beraz, ez dute ospitaleratzerik behar, eta ebaketa egin eta ordu gutxitara alta ematen zaie.

**Gainerako ebaketa anbulatorioak.—**Ospitaleko kirofanoetan modu anbulatorioan egindako interbentzio txikiak.

**Kanpo-zirkulaziozko kirurgia.—**Bihotzeko edo hodi nagusietako ebaketak egiterakoan kanpoko zirkulazio-ponpa bat erabili behar izaten denekoa.

## ACTIVIDAD ASISTENCIAL EN MATERNIDAD

**Parto por vía vaginal.—**Terminación del embarazo mediante la expulsión de un feto por vía vaginal.

**Partos por cesárea.—**Número total de partos atendidos mediante cesárea.

**Recién nacidos vivos.—**Cualquier producto de la concepción con peso igual o superior a 500 gramos que en el momento del alumbramiento, esté o no cortado del cordón umbilical, manifieste actividad motora o latidos cardiacos audibles.

**Fallecimientos maternos.—**Número total de muertes durante el embarazo y hasta 42 días después del parto provocadas por cualquier causa agravada por el embarazo, parto o su asistencia.

No se consideran fallecimientos maternos, cuando la causa de muerte es accidental (por ejemplo, un accidente de tráfico en una mujer embarazada).

## AMATEGIETAKO ASISTENTZI JARDUERA

**Ematutu bidezko erditzea.—**Haurdunaldia, umekia ematutu bidez iraitziz amaitzea.

**Zesarea bidezko erditzea.—**Zesarea bidez izandako erditze guztien kopurua.

**Bizirik jaioberriak.—**500 gramo edo gehiagoko sorkunde-fruitu oro, erditzeko unean mugitzen direnak eta bihotz-taupada entzungarriak dituztenak, zilborrestea etena duten ala ez kontuan hartu gabe.

**Ama-heriotzak.—**Haurdunaldian eta haurra izan eta ondorengo 42 eguneko epean hildakoen kopurua, haurdunaldiarengatik, erditzearengatik edo erditzean emandako laguntzarengatik gaizkoaturiko kausak direla bide.

Ez dira ama-heriotzatzat hartzen ustekabeko kausaren batengatik etorritako heriotzak (adibidez, emakume haurdunek izandako zirkulazio-istripuen ondoriozko heriotzak).

## DATOS ECONOMICOS DEL CENTRO

La fuente de información es la contabilidad del centro y más concretamente los saldos de las cuentas del nuevo Plan General de Contabilidad (aprobado, por Real Decreto de 20 de diciembre de 1990).

En aquellos casos en los cuales el hospital no tiene una contabilidad absolutamente separada del ente del cual depende, los gastos que origina el hospital y figuran como gastos del citado ente se imputan al hospital con independencia de quién los pague.

Las cuentas de Compras y Gastos (a excepción de Dotaciones para Amortizaciones y Provisiones 6.8 y 6.9),

## ZENTROAREN DATU EKONOMIKOAK

Informazio-iturria zentroko kontabilitatea da, Kontabilitate Plan Orokor berriaren kontuen saldoak, hain zuzen (Plan hori 1990eko abenduaren 20ko Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Ospitaleak bere jabe den erakundetik zeharo banandutako kontabilitatea ez daukan kasuetan, ospitaleak egindako gastuak eta erakundearenak bezala ageri zirenak ospitaleari egotzi zaizkio, zeinek ordaindu zituen kontuan hartu gabe.

Erosketa eta gastuen kontuak (amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak izan ezik, 6.8 eta 6.9), dagozkien

recogen los compromisos de pago adquiridos durante el año por los conceptos a que se refieren, es decir, con independencia de cuando se pagan esos compromisos o cuando son utilizados por el centro los elementos adquiridos.

**Gastos de personal.—**Se hacen constar las retribuciones por trabajos extraordinarios. Es importante resaltar que estas retribuciones son del personal contratado o de plantilla del centro, lo cual es importante puesto que los suministros, trabajos y servicios prestados por personas individuales que no forman parte de la plantilla del centro, así como de las empresas que prestan servicios al hospital, figuran en las cuentas 6.2, Servicios exteriores.

**Dotaciones para amortizaciones.—**El coste que supone para el centro la amortización de edificios (no incluyendo el valor de los terrenos), maquinaria, patentes, etc. Se trata de una amortización no financiera, es decir, con independencia de si los bienes han sido pagados al contado o a plazos, y en este último caso con independencia del valor de las anualidades que hay que pagar al Banco o a la casa suministradora que financió la adquisición.

En estas cuentas se recoge la depreciación de los elementos amortizables del activo.

### INVERSIONES REALIZADAS DURANTE EL AÑO

La inversión en edificios, terrenos, equipos, etc., se refiere al año en que la inversión se compromete aunque ese año no se pague. Es decir, si el hospital adquiere en 1996 un Scanner por valor de 30 millones paga al contado 5 millones y el resto en cuatro años, la inversión por este concepto en el año 1996 es de 30 millones de pesetas.

Se incluyen las compras de maquinaria y equipo que vayan a durar varios ejercicios, como es el caso de: instalaciones de quirófano, cocina, calefacción, etc., no incluyéndose el material quirúrgico fungible o de menor cuantía: catéteres, bisturís, sondas, etc.

### VENTAS DE INGRESOS

**Ingresos por prestaciones de servicios asistenciales.—** En esta cuenta se recogen los ingresos derivados de las prestaciones de los distintos servicios que ofrece el hospital: estancias, consultas externas, análisis, radiografías, etc., según quién los pague: particulares, concertados con mutuas y otras entidades aseguradoras privadas, etc.

Las cuentas de ingreso por estancia de hospitalización incluyen, además de la hostelería, farmacia, quirófano, laboratorio, etc. Los honorarios profesionales se incluyen en estas cuentas, cuando el hospital ha facturado estos honorarios y se contabilicen por el hospital en las cuentas 6.4 gastos de personal.

**A particulares.—**Ingresos derivados de los servicios prestados a enfermos que pagan directamente al hospital sin que exista la actuación de ningún intermediario, como Insalud, mutuas, etc.

kontzeptuengatik urtean zehar hartutako ordaintzeko konpromezuak jasotzen dituzte, hau da, konpromezu horiek noiz ordainduko diren edo zentroak erositako elementuak noiz erabiliko diren kontuan hartu gabe.

**Langileri gastuak.—**Aparteko lanengatiko ordainsariak adierazi dira. Badu garrantzirik ordainsa horiek langile kontratatuenak ala zentroko langile-zerrendakoenak diren azpimarratzeak, zeren eta zentroko langile-zerrendakoak ez diren pertsonek egindako hornidura, lan eta zerbitzuak, eta orobat ospitaleari zerbitzuak egiten dizkieten enpresek egindakoak, kanpoko zerbitzuetako 6.2. kontuetan ageri baitira.

**Amortizaziotarako zuzkidurak.—**Eraikinen (lurren kostua kontuan hartu gabe), makineriaren, patenteen etab.en amortizazioak zentroari ekarri zion gastua. Amortizazio ez finantzarioa da, hots, ondasunak eskudirutan ala epera ordainduak izan diren kontuan hartu gabe, eta epera ordainduak izanez gero bankuari edo erosketa finantzatu zuen etxe hornitzaileari ordaindu beharreko urtekoen balioa kontuan hartu gabe.

Kontu horietan aktiboko elementu amortizagarrien depreziazioa jaso da.

### URTEAN ZEHAR EGINDAKO INBERTSIOAK

Eraikin, lur, ekipo etab.etan egindako inbertsioa, zein urtetarako konprometitzen den, horri dagokio, nahiz eta urte horretan ez ordaindu. Esate baterako, ospitaleak 1996ean 30 milioi pezetako scanner bat erosi izan balu eta eskura 5 milioi eman izan balitu eta gainerakoa lau urtetan ordaindu, kontzeptu horrengatik 1996n egindako inbertsioa 30 milioi pezetakoa izango litzateke.

Hor sartzen dira ekitaldi bat baino gehiago iraungo duten makineria eta ekipoaren erosketak, hala nola ebakuntza-gela, sukalde, berokuntza, etab.en instalazioa. Ez dira barnehartu, ordea, kirurgiako material suntsigarria edo txikia: kateterrak, bisturiak, sondak etab.

### SALMENTAK ETA SARRERAK

**Asistentzi zerbitzuak egiteagatiko sarrerak.—**Kontu horretan ospitaleak eskaintzen dituen zerbitzu desberdinak egiteagatik eratorritako sarrerak jaso dira: egonaldiak, kanpo-kontsultak, analisiak, erradiografiak, etab. ordaintzen dituenaren arabera (partikularrek, mutuekin eta beste entitate aseguratzaile pribatuekin itundutakoek, etab.).

Ospitaleko egonaldiegatiko sarrera-kontuek barnehartzen dituzte, ostalaritzakoez gainera, botikenak, ebakuntza-gelakoak, laborategikoak, etab., baldin eta ospitalea izan bada zerbitzu-sari horiek fakturatu dituena eta ospitaleak kontabilizatzen baditu 6.4. kontuetan, langileri gastuen kontuan, alegia.

**Partikularrenak.—**Insalud-en, mutuen eta horrelako bitartekarien partaidetzarik gabe ospitaleari zuzenean ordaintzen dioten gaixoei egindako zerbitzuetatik etorritako sarrerak.

**Concertados con mutuas y otras entidades aseguradoras privadas.—**Se recogen los ingresos derivados de servicios prestados a enfermos que son atendidos en el hospital por cuenta de una mutua o de una entidad privada de seguro libre. Normalmente, no siempre, existirá un concierto previo entre el hospital y la entidad. A veces, el enfermo paga directamente al hospital parte de los servicios: medicación, parte de la hospitalización, etc. En este caso, la cantidad pagada directamente por el enfermo debe figurar en la cuenta 7.0.0 (particulares). En el caso de que un hospital sea propiedad de una mutua o de una entidad de seguros, si no cobra por los pacientes afiliados a la entidad propietaria, no se hace constar ninguna cantidad en esta cuenta.

